

Konta Kontari

1puinak euskaraz

A wooden signpost with a white sign in the center, set against a backdrop of lush green trees. The sign reads 'HUR ETA FRUITUEN ALT XORRA' in bold, black, uppercase letters. To the left of the sign, a woven basket sits on the grass, filled with various fruits like apples and pears. To the right, a small brown squirrel with a white belly is sitting on the grass, holding a nut. The scene is bright and colorful, with green grass at the bottom and a clear sky above the trees.

**HUR ETA
FRUITUEN
ALT XORRA**

BAZEN BEHIN HARITZGOTORREKO BASO HOSTOTSUAN HUR
IZENeko URTXINTXA BAT. HUR URTXINTXA BITXI ETA
AUSARTA ZEN, ABENTURAK GOGOKO ZITUENA. BAINA EGUN
HARTAN, ESNATU ZENEAN, HUR EZ ZEN ABENTURA BILA ATERA.



GOSEAK ZEGOEN ETA EZ ZUEN JATEKO EZER. UDABERRI HARTAN IA EZ ZUEN
EURIRIK EGIN, ETA ZUHAITZEK EZ ZUTEN FRUITURIK EMAN. ZUHAITZ HANDI
BATEN ONDOAN ESERI ETA TRISTE ETZAN ZEN.

UNE HORRETAN, HAIZEAK EKARRITAKO AHOTS BATEK XUXURLATU ZION:



"SEGI ZURE USAIMENARI
MENDEURRENEKO HARITZAREN AZPIAN
ZAIN DUZUN ALTXORRERAINO".



HURREK EZIN ZUEN SINETSI ENTZUNDAKOA.



- PENTSATU ZUEN.

IBILITA AZERIAREN ETXERA HURBILDU ZEN, BAINA LO AURKITU ZUEN.



- GALDETU ZION BERE BURUARI HARRITURIK.

UNE HORRETAN AHOTSAREN OIHARTZUNAK HELDU ZITZAIZKION BERRIRO:

"SEGI ZURE USAIMENARI HUR".

ZIRRARAZ, HUR USNAKA HASI ZEN. HAIZEAK USAIN GOXOA ZEKARREN ETA HURREK BERE SENARI JARRAITZEA ERABAKI ZUEN.

HALA, HARITZ HANDI ZAHAR BAT ZEGOEN MUINO BATERA IRITSI ZEN.

**"HAU IZANGO DA LEKUA", PENTSATU ZUEN HURREK.
"ETA ORAIN ZER? "GALDETU ZION BERE BURUARI.**



ORDUAN, TENTUZ HURBILDU ETA ZULO TXIKI BAT SUMATU ZUEN
ENBORREAN. AUSARDIAZ, ZULOTIK IRRISTATU ETA LURPEKO HAITZULO
BATEN BARRUAN AURKITU ZEN.



HAITZULOA GOITIK IRAGAZTEN ZIREN
EGUZKI-DISTIREK ARGITZEN ZUTEN.
HUR AUERRERA JOAN ZEN AUSARKI.
HAITZULOAREN SAKONERA IRITSI ZEN ARTE.



HAN, ZULO SAKON BATEAN, GAZTAINAK, HURRAK, INTXAURRAK ETA EZKURRAK
IKUSI ZITUEN HURREK. HAINBESTE ZEUDEN, EZEN HUR ETA BERE FAMILIAK NEGUA
ETA UDABERRIA GOSERIK GABE IGARO BAITZETAZAKETEN, UDA FRUITU BERRIEKIN
IRITSI ARTE.

**BAINA HUR TXIKIA ZEN, ETA AHALEGINTZEN BAZEN ERE, FRUITU ZORAGARRI
HAIETAKO PARE BAT ESKURATZERA BESTERIK HELTZEN ZEN.**



**GAINERAKOAK SAKONEGI ZEUDEN BEREN BESO TXIKIEKIN HARTU AHAL IZATEKO. ZER
EGIN ZEZAKEEN?**

**ETSITA, HUR NEGARREZ HASTERA
ZIHOAN AHOTSAK BERRIRO ENTZUN
ZUENEAN. ORAINGOAN, ARGI ETA
GARBI:**



**"ALTXOR HAU BESTEEKIN PARTEKATZEKO JAKITURIA DUTENEK SOILIK
LORTUKO DUTE".**



ORDUAN, HURREK IDEA BAT IZAN ZUEN.

**ALTXORRA LORTZEKO BASOKO GAINERAKO KIDEEKIN
BATERA LAN EGINEZ GERO LORTUKO ZUELA
KONTURATU ZEN.**

**HALA, HURREK LORTUTAKO FRUITU APURRAK HARTU
ETA BASORA ITZULI ZEN KORRIKA.**

HAN AZERI AZKARRARI, HONTZ JAKINTSUARI ETA BASURDE AUSARTARI
LAGUNTZA ESKATU ZIEN.




NAHIZ ETA, GOSEAK JOTA, HAI EK ERE OSO NEKATUTA EGON, SEGITUAN ULERTU
ZUTEN BASOAK BEHAR ZITUELA.

DENEN ARTEAN PLAN BAT EGIN ZUTEN.



BIHARAMUNEAN KOBAZULORA JOAN ZIREN HURREK GIDATUTA.

ZERIAK EGINDAKO SOKA BATEKIN
ETA BASURDE INDARTSUAK EUTSITA,
SASKI BAT JAITSI ZUTEN ZULORAINO.



GERO HONTZA ZULORA JAITSI ZEN. APURKA-APURKA, OTARREA
FRUITUZ BETE ZUEN.



**SASKIA BETETA EGON ZENEAN, HUR, AZERIA ETA BASURDEAK GOGOR
TIRATU ZUTEN SASKIA ZULOTIK ATERATZEKO.**



**HALA, LAU LAGUNEN ARTEAN KOBATIK FRUITU GUZTIAK ATERA ETA BASORA
ITZULI AHAL IZAN ZIREN.**




**BERTAN BASOKO GAINERAKO ANIMALIEKIN PARTEKATU ZUTEN
ALTXORRA.**

**AUSARDIARI, ASMAMENARI ETA BIHOTZ ONARI ESKER, BASOKO ANIMALIA GUZTIEK
BIZIRIK IRAUN AHAL IZAN ZUTEN NEGU GOGORRETIK, ELKAR ETA ALAI.**

**HUR KONTURATU ZEN AURKITU ZUEN ALT XORRIK HANDIENA EZ ZEGOELA
FRUITUETAN, BERE LAGUNEN BIHOTZEAN BAIZIK.**




**ETA HORRELA, IRRIBARREA AURPEGIAN, BASOA ARAKATZEN JARRAITU ZUEN
ABENTURA BERRIEN BILA,
JAKINIK BALIOTSUENA ADISKIDEENGAN ZETZALA.**



Konta Kontari

Ipuiak euskaraz



IPUIN HONEN BIDEOA YOUTUBEN

<https://youtu.be/qqm1C4EWkja>

IPUIN GEHIAGO YOUTUBEN

[https://www.youtube.com/playlist?
list=PLEXgW3DNhVYn_YHKHMXBL14LoC-SAXvUF](https://www.youtube.com/playlist?list=PLEXgW3DNhVYn_YHKHMXBL14LoC-SAXvUF)

WEBGUNEAK

IPUIN HONEN AURKEZPENA WEBGUNEAN

[https://www.canva.com/design/DAGA6vHre7Q/BpBHR4dLpskpjqIC
GhDqzA/view?utm_content=DAGA6vHre7Q](https://www.canva.com/design/DAGA6vHre7Q/BpBHR4dLpskpjqICGhDqzA/view?utm_content=DAGA6vHre7Q)

IPUIN GEHIAGO WEBGUNEAN

<https://www.kontakontari.com/ipuiak>